

ESTATUTUEN TESTU BATEGINA

**FUNDACIÓN KIROLARABA
FUNDAZIOA**



“FUNDACIÓN KIROLARABA FUNDAZIOA” ERAKUNDEAREN” ESTATUTUAK

I. TITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Izena.

- 1.- “**FUNDACIÓN KIROLARABA FUNDAZIOA**” (aurrerantzean fundazioa) izena eman zaio Arabako Foru Aldundiak irabazi asmorik gabeko erakundeari. Fundazioak modu iraunkorrean erabiliko du interés orokorreko helburuak lortzeko.
- 2.- Fundazioaren araubidea eratu duen pertsonaren nahiak, estatutu hauek eta, edonola ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legea, garapeneko araubidezko erregelamendu xedapenak eta indarrean dagoen gainerako araudia kontuan hartuz gauzatu da.
- 3.- Fundazioa epe mugagaberako sortu da.

2. artikulua.- Araubide juridikoa, gaitasuna eta izaera juridikoa.

- 1.- Fundazioak izaera juridiko propioa eta independentea izango du eraketa eskritura Fundazioen Erregistroan inskribatzen denetik aurrera, eta guztizko gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna izango ditu. Muga bakarrak fundazio egintzan fundatzaileak adierazitako nahiak, estatutu hauetan ezarritakoak eta bereziki Euskal Autonomía Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legean ezarritakoak izango dira.
- 2.- Ondorioz, eta albo batera utzi gabe babesletzari egin beharreko jakinarazpenak, fundazioak jarduteko guztizko gaitasuna izango du bere helburuak betetzeko, Kode Zibilaren 38. Artikuluan aurreikusitakoa betez. Fundazioak honakoak egin ahal izango ditu.
 - a) Mota guztietako jarduera ekonomikoak gauzatu ahal izango ditu bere helburuak lortzeko edo baliabideak eskuratzeko.
 - b) Titulu eta mota guztietako ondasunak eta eskubideak eskuratu eta besterendu ahal izango ditu eta mota guztietako ekimenak, negozioak eta kontratuak egin ahal izango ditu.
 - c) Bere estatutuekin eta legeekin bat eginez mota guztietako ekintzak gauzatu ahal izango ditu.

3. artikulua.- Fundazioaren helburuak.

- 1.- Fundazioa irabazi asmorik gabeko erakundea da, eta bere helburua Araban kirola sustatu eta garatzea da, lehentasuna emanez errendimendu handiko kirol ez-profesionalari eta etorkizun handiko kirolari.

Bere helburuak betetzeko, mota guztietako baliabide ekonomikoak (batez ere babes publiko eta pribatuak) bereganatuko ditu. Erakundeak egiten dituen programak finantzatzeko, eta etorkizun oparoa duten kirolarien kirola hobetzeko behar diren zerbitzuak emango ditu. Era berean, profesionala ez den edozein kirolari edo kirol erakunderi zuzenean nahiz zeharka babesa ematea bultzatuko du.
- 2.- Horren ondorioetarako, goi mailako kiroltzat zera hartzen da: Arabako lurraldeko kirol federazioei atxikitako kirol club edo elkarteetako kirolariek estatuko amateur mailarik goreneko lehiaketetan parte hartuz egiten dutena, baita ere beren mailaren, ibilbidearen eta kirol lorpenen garrantziagatik fundazioak berak sustatzea erabakitzen duen banakako kirolariena; eta kirol ez profesionaltzat hauxe hartzen da: kirol jarduera zaletasunagatik edo onura fisikoagatik soilik egiten duten kirolariek egiten dutena, irabazia edo ordaina lortzeko asmorik gabe, helburu ludikoa ekonomikoaren gainetik eta jolasa lanaren gainetik jarrita, kirol jarduera inola ere haren ogibidea den ordainsaria lortzeko modu bat izan gabe, eta inola ere ezin izan dezaketelarik ekainaren 26ko 1006/1985 Errege Dekretuak, mota honetako kirolarien lan harremanak arautzen dituenak, 1.2.

artikuluaren deskribatzen duen kirolari profesionalaren izaera. Fundazioak garatu beharreko programak direla eta, goi mailako kirol ez profesionaltzat hartzeko kiroleko bakoitzean parte hartu behar duten gutxienekoak zehazteko, fundazioaren patronatuak, berak ezarritako irizpideen arabera, urtero zerrendatu beharko ditu Arabako kirol federazioetako bakoitzari dagozkion kopuruak.

- 3.- Helburu hori lortzeko, fundazioak egoki deritzon legezko bitartekoak erabili ahal izango ditu. Horretarako, bere baliabide ekonomikoaren eta patronatuak kasu bakoitzean onartzen dituen programa zehatzen arabera, honako jarduerak hauek garatuko ditu:
 - a) Baliabide ekonomikoak lortzea pertsona fisiko eta/edo juridikoetatik, publiko edo pribatuetatik edo publizitate bidezko jarduerak ekonomikotik, eta baliabide horiek erabiltzea Araban kirola sustatzen eta garatzen duten programetan.
 - b) Kirol programak eta programa ekonomikoak sortzea eskuragarri dauden baliabide ekonomikoak zuzentasunez erabiltzen direla bermatuz eta kirola hobetzeko ekarpenak eginez.
 - c) Kirol programa horiek garatzen eta egikaritzen parte hartzea.
 - d) Kirol ekitaldiak edo kirolarekin zerikusia daukaten jarduerak antolatu, babestu eta laguntzea, hala badagokio, baldin eta kirola sustatu eta garatzen laguntzen badute.
 - e) Kirola babesteko eragiketak sustatzea eta arlo horretan aholkularitza ematea.
 - f) Fundazioaren xedea betetzen laguntzen duten beste edozein jarduerak.
- 4.- Fundazioaren helburua lortzeko fundazioak beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin lan egingo du eta, horretarako, lankidetzak eta babesletzak akordioak sinatuko ditu.

4. artikulua.- Helbidea eta lurralde eremua.

- 1.- Fundazioaren egoitza Gasteizen egongo da, Probintzia plazaren 5. zenbakiko 3. solairuan. Fundazioak bere helburua garatzeko delegazioak eta bulegoak sortu ahal izango ditu, aldi baterako edo modu iraunkorrean, beste udalerririk batzuetan edo estatu barneko edo atzerriko edozein lekutan.
- 2.- Fundazioaren patronatuak estatutuak aldatzeko hartutako erabakiaren bitartez egoitza lekualdatu ahal izango da, eta helbide berria Fundazioaren Erregistroan inskribatu beharko da. Era berean, patronatuak eskumena izango du fundazioaren helburuak betetzeko ezartzen diren establezimenduen, delegazioen edo bulegoen egoitzak zehazteko.
- 3.- Fundazioak nagusiki Arabako Lurralde Historikoan gauzatuko ditu jarduerak.

5. artikulua.- Onuradunak.

- 1.- Fundazioaren prestazioen eta zerbitzuen onuradun izango dira Araban erroldatuta dauden kirolariak edo dagozkion Arabako federazioak izapidetutako fitxa dutenak, bai eta egoitza soziala Araban duten kirol-erakundeak ere, baldin eta fundazioak onartutako errendimendu handiko kirol-programa ez-profesionalak garatzen badituzte. Halaber, Fundazioaren onuradun izan ahalko dira, zuzenean edo zeharka, Arabako edozein kirolari edo kirol-erakunde ez-profesional.
- 2.- Onuradunak izendatzeko, Patronatuak honakoak izango ditu kontuan:
 - a) Fundazioak pertsona fisiko edo juridikoen kolektibitate generikoei lagundu beharko die. Horiek enpresa bateko eta askotariko eta horien familiako langileen kolektiboak izango dira. Edonola ere, onuradunen kolektiboak aukeratzeko irizpideak objektiboak eta inpartzialak izango dira.
 - b) Fundazioaren helburu nagusia ez da izango prestazioak fundatzaileei edo patronatuko kideei, horien ezkontideei edo afektibitate harreman analogoekin horiekiko lotura dutenei edo laugarren mailara arteko (maila hori barne) senideei ematea, ezta helburu nagusiarekin bat egiten ez duten pertsona juridiko bereziei ere.

- c) Inork ezin izango du ez banaka ez modu kolektiboan fundazioan edo patronatuan onuradunek gozatzeko eskubidea dutela alegatu onurak eman aurretik, eta ezin izango dira onurak pertsona zehatz batzuei egotzi.
- 3.- Fundazioak guztizko publizitatea eman beharko dio bere helburuen, programen eta jardueren inguruan arabar gizarteari eta bereziki kirol erakundeei, onuradun posibleek horien berri izateko.

6. artikulua.- Jarduketa eta funtzionamendu printzipioak.

Fundazioaren jarduketek honako printzipioekin bat egingo dute:

- a) Publizitatea eta gardentasuna. Fundazioak bere helburu eta jardueretik nahikoa informazio eman beharko du herritarrek eta onuradun posibleek horien berri izateko.
- b) Inpartzialtasuna eta diskriminaziorik eza onuradunak eta jarduerak eta prestazioak zehazterako orduan.
- c) Jarduketa zuzentarauak sustatzea jokaera kodeak eta funtzionamendurako praktika onak sortuz.
- d) Patronatua eratzen duten pertsonen zerbitzurako jarrera izatea eta fundazioaren interesak norbere interesen edo interes partikularren aurretik jartzea.
- e) Lankidetzeta leiala eta etengabea izatea Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzarekin.
- f) Fundazioaren ondarea eta errentak fundazioaren helburuetara bideratzeko betebeharra defendatzea eta eraginkortasunez hori betetzen dela babestea, estatutuekin eta indarrean dagoen araubidearekin bat eginez.
- g) Genero berdintasuna.

II. TITULUA.- PATRONATUA

7. artikulua.- Fundazioaren patronatua.

- 1.- Patronatua fundazioaren gobernu- eta ordezkaritza-organoa da. Patronatuak fundazioaren helburuak bete behar ditu, fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak arduraz administratu behar ditu eta horien errendimendua eta erabilgarritasuna mantendu behar ditu.
- 2.- Funtzioak modu kolegiatuan eta burujabeen egikarituko ditu misioa betetzean eta patronatuaren ekimenak behin betikoak izango dira, babesletzari legeek ematen dizkieten eskumenak albo batera utzi gabe.
- 3.- Fundazioaren helburuak lortzeko baliabide ekonomikoak lortzea sustatuko du, fundazioaren baliabide ekonomikoak nola aplikatu erabakiko du eta onuradunak eta laguntzen zenbatekoak zehaztasunez esleituko ditu..

8. artikulua.- Patronatuaren osaera.

1.- Fundazioaren patronatua gutxienez hiru kidek eta gehienez sei kidek osatuko dute.

Patronatua osatzen dutenek derrigorrez ezarritako gutxienerako kide kopurua mantendu beharko dute, hau da, ez dira egongo hiru kide baino gutxiago.

2.- Patronatuan parte hartu ahal izango dute pertsona fisikoek eta pertsona juridikoek. Patronatua osatzen duten pertsona fisikoek jarduteko guztizko gaitasuna izango dute eta kargu publikoak izateko desgaitu gabe egon beharko dira. Patronatuko pertsona juridikoek organoa ordezkatzeko pertsona fisikoa edo pertsona fisikoak izendatu beharko dituzte.

3.- Patronatuan honako karguak dituzten kideak egongo dira:

- Presidentea.
- Arabako Foru Aldundian kirol alorrean eskumenak dituen foru diputatuak proposatu ondoren izendatuko dituen kideak, gehienez ere bost.
- Idazkaria, fundazioaren patronatuko kide izango ez dena, eta hitza izango du baina ezin izango du bozkatu.

Fundazioaren patronatuko berezko karguak hauek izango dira:

- Presidentea, kirol alorrean eskumenak dituen Arabako Foru Aldundiaren Sailaren titularra izango dena.

9. artikulua.- Patronatuko kideak izendatzea eta horiek kargugabetzea.

1.- Lehenengo patronatua fundazio eskrituran agertzen den lehenengo fundatzaileak izendatuko du.

2.- Patronatuko kide berriak izendatzeko eskumena, kideak gehitu direlako edo ordezkapenak egon direlako, Arabako Foru Aldundiak izango du.

3.- Patronatuak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan jakinarazi beharko du patronatua osatzen duten pertsonen izendapena eta kargugabetzea erabakia hartzen denetik edo uko egitetik hiru hilabete pasatu baino lehen.

4.- Izendatuek berriaz onartu beharko dute kargua Euskal Autonomia Erkidegoko Legearen 16. artikuluan aurreikusitako moduren batean. Uko egiteko artikulua horretako 2. atalean aurreikusitako moduren bat erabili beharko da.

5.- Patronatuko kideak kargugabetzea eskumenak dituen organo judizialak erabaki ahal izango du horien aurka erantzukizun ekintza egikaritzen duenean legean aurreikusitako diligentsiarekin kargua egikaritu ez dutelako.

6.- Gobernu organoaren kideak izendatzea eta kargugabetzea Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko da.

10. artikulua.- Patronatuko kideak kargugabetzeko arrazoiak.

Fundazioaren patronatuko kideak kargugabetu egingo dira honako inguruabarretan:

- a) Pertsona zendu egin delako edo zentze adierazpena dagoelako edo izaera juridikoa iraungi egin delako.
- b) Desgaitasuna, desgaitasun edo bateraezintasuna gertatu delako legeak ezarritakoarekin bat eginez.
- c) Patronatuko kideak izateko izendatuak izan ziren kargua utzi egin dutelako.
- d) Ebazpen judizialean hala zehazten baldin bada kargua ordezkari leial gisa gauzatu ez izanagatik.

- e) Erantzukizun ekintza jasotzen duen ebazpen judiziala dela eta.
- f) Agintaldia bukatu delako, denbora zehatz baterako izendatuak izanez gero.
- g) Uko egiteagatik.
- h) Arabako Foru Aldundiak hala erabaki duelako.

11. artikulua.- Patronatuko kideak ordezkatzea.

1.- Patronatuko kideak ordezkatzeko prozedura hauxe izango da:

- Presidentea ez baldin badago edo gaixorik baldin badago bere funtzioak gauzatuko dituen izendatzen duen gobernu organoko kidea izango da. Horrelakorik ez baldin badago, funtzio horiek adinez nagusiagoa den patronatuko kideak gauzatuko ditu.
- 2.- Ordezkapena adierazitako moduan ezin baldin bada egin Fundazioen Legean aurreikusitako estatutuen aldaketa egingo da eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzak izango du behin-behinean fundazioaren gobernu organoa eta ordezkari organoa osatuko duten pertsonak izendatzeko eskumena, aipatutako estatutuen aldaketa egikaritu arte.
- 3.- Patronatuan uneren batean 3 kide baino gutxiago baldin badaude (kide bakarra dagoen kasuak salbuetsiz), kargua indarrean duten gainerako kideek edo fundatzaileek legean ezarritako gutxieneko kopurua betetzeko behar adina kide izendatu ahal izango dituzte, eta izendapen horiek babesletzari jakinaraziko dizkie 30 eguneko epean.
- 4.- Patronatuko kideen ordezkapenak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.

12. artikulua.- Patronatuaren iraupena.

- 1.- Patronatuko kideen karguak lau urte iraungo du, eta hala dagokionean, karguak berriz ere hautatu ahal izango dira.
- 2.- Plaza hutsak sortu baldin badira kideren bat zendu egin delako, desgaitasuna, desgaikuntza, zentze adierazpena, bazterketa edo bateraezintasuna egon delako, agintaldia bukatu delako, karguari uko egiteagatik, kargutik kendu delako edo gobernu organoaren kideren bat ordezkatzea edo kargutik kentzea sortu duen inguruabarren bat gertatu delako, hutsik geratutako lanpostuak Arabako Foru Aldundiak beteko ditu eta plaza hutsa ordezkatzeko prozedurak ezin izango du 6 hilabete baino gehiago iraun.

13. artikulua.- Patronatuko kideen karguaren doakotasuna

- 1.- Patronatuko kideek kargua doan egikarituko dute. Hala ere, karguan daudela behar bezala justifikatutako gastuak itzuli ahal izango dira.
- 2.- Patronatuak fundazioan berezko eginkizunetatik haratago zerbitzuak ematen dituzten patronatuko kideei ordainsaria eman ahal izango die fundatzaileek berariaz hori debekatzen ez baldin badute. Erabaki hori era berean babesletzak baimendu beharko du hiru hilabeteko epean.

14. artikulua.- Patronatuko presidentea.

- 1.- Patronatuko presidentea Arabako Foru Aldundian kirol alorrean eskumenak dituen sailaren titularra izango da, eta berak egingo dio deialdia patronatuari, bere ekimenez edo hirugarren alderdi batek eskatuta. Hala, gutxienez patronatuko kideei deialdia egingo die, eztabaidak zuzenduko ditu eta erabakiak betearaziko ditu.
- 2.- Patronatuko presidentea izango da gobernu organoa guztiz ordezkatzeko duena, eta organo horren kide den heinean fundazioa ordezkatzeko du ekimen guztietan eta patronatuko erabakietatik eta fundazioaren beste organoetatik eratorritako ekimen eta kontratuetan. Horrez gain, aurkezten diren auzi, espediente, administrazio ekimen, gobernu ekimen, ekimen judizial eta judizioz kanpoko ekimenetan ere fundazioa ordezkatzeko du, eta eskumenak izango ditu helburu hori lortzeko prokuradoreen edo abokatuen aldeko auzietarako eskumen orokorrak emateko.
- 3.- Patronatuko presidentek honako eginkizunak izango ditu:
 - a) Patronatuarekin egingo diren bilera deialdiak agintzea eta sinatzea.
 - b) Patronatuaren bileretan presidente lanak egitea, erabakiak zuzenduz eta kalitatezko botoaren bitartez erabakiak hartuz berdinketak egonez gero.
 - c) Patronatuaren gobernu eginkizunak sustatzea eta funtzionamendua ohikoa dela bermatzea.
 - d) Bere oniritziarekin baimena ematea patronatuaren aktei eta erabaki ziurtagiriei.
 - e) Patronatuaren erabakiak betetzea eta betetzen direla bermatzea.
 - f) Bere karguarenak diren gainerako eginkizunak.

15. artikulua.- Idazkaria.

- 1.- Patronatuaren idazkariak hitza izango du baina ezin izango du bozkatu, eta idazkaria kirol alorrean eskumenak dituen Arabako Foru Aldundiaren sailaren funtzionario bat izango da, sail horretako titularrak izendatuko duena, eta akten liburuan transkribatuko diren bileren aktak egingo ditu horiek onetsi ondoren eta presidentearen oniritzia jaso ondoren.
- 2.- Hauek izango dira idazkariaren eginkizunak:
 - a) Patronatuaren bileretan idazkari lanak egitea, eta hala badagokio gainerako organo kolegiatuetan idazkari lanak egitea, bileretako aktak eginez eta erabakitakoari fede emanaz.
 - b) Fundazioaren presidentearen oniritzia duten ziurtagiriak ematea.
 - c) Fundazioaren liburuak eta erregistroak antolatzea eta gordetzea.
 - d) Gai-zerrenda zehazteko presidenteari laguntza eskaintzea eta patronatuaren bileren deialdiak egitea.
 - e) Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroari jakinaraztea beharrezko erabaki guztiak, indarrean dagoen araubidearekin bat eginez.
- 3.- Idazkariaren kargua hutsik geratzen baldin bada, idazkaria ez baldin badago bileran edo gaixorik baldin badago eta berariazko izendapenik egin ez baldin bada, idazkari lanak egingo ditu gobernu organoaren kide gazteenak.

16. artikulua.- Fundazioan lan egingo dutenak.

Ohiko kudeaketa egikaritzeko kudeatzailletza izendatu ahal izango da, eta kudeatzailletzaren izendapena eta kargugabetzea babesletzari jakinarazi beharko zaizkio. Kudeatzaileari emandako eskumen orokorrak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.

17. artikulua.- Patronatuaren eginkizunak.

- 1.- Patronatuaren eginkizunak fundazioaren gobernuari eta administrazioari dagozkionak dira, eta bereziki honako hauek gutxienez:
- a) Fundazioaren helburuak hobeto lortzeko fundazioaren ikuspuntua adieraztea.
 - b) Jatorria edozein izanda ere baliabide ekonomikoak eta finantza baliabideak guztiz administratzea.
 - c) Inbentarioa, egoera balantzea, emaitzen kontua eta aurreko ekitaldiko memoria onestea, baita ekitaldi horretako jarduketa planaren likidazioa ere.
 - d) Hurrengo ekitaldiko jarduketa plana eta bere azalpen memoria onestea.
 - e) Egokiak diren barne araubideko arauak onestea.
 - f) Delegazio batzordeak sortzea, kideak izendatzea eta horien eskumenak zehaztea eta hurrengo artikuluekin bat eginez ahalorde orokorrak edo bereziak ematea.
 - g) Zuzendariak, kide exekutiboak eta aholkulariak izendatzea eta gainerako teknikariak, administrariak, langileak eta urgazleak kontratatzea.
 - h) Ekimen eta kontratu guztiak formalizatzea eta onestea, zibilak, merkataritzakoak, lanekoak, administrazioakoak edo bestelakoak, fundazioaren helburuak ahalik eta hobekien betetzeko. Bereziki fundazioaren helburuak lortzeko baliabide ekonomikoak lortzea sustatuko du, fundazioaren baliabide ekonomikoak nola aplikatu erabakiko du eta onuradunak eta laguntzen zenbatekoak zehaztasunez esleituko ditu.
 - i) Goi mailako erabakiak egin beharreko kasuetan egoki diren proposamenak eskumenak dituzten organoetara eramatea.
 - j) Lankidetzaren tekniko eta kualifikatutako langileen prestakuntzako programetan enpresek, erakundeek, organismoek edo partikularrek parte hartzea sustatzea, funtsak eta lankidetzaren hitzarmenak emanez.
 - k) Fundazioarentzat egokia denean jaraunspenak, legatuak edo dohaintzak onartzea edo baztertzea, babesletzari horren berri emanaz.
 - l) Fundazioko estatutuak aldatzea fundatzaileen nahiak betetzeko hori egitea beharrezkoa baldin bada.
 - m) Fundazioak garatu beharreko programak direla eta, goi mailako kirol ez profesionaltzat jotzeko kirol bakoitzean parte hartu behar duten gutxiengokoak zehazteko, fundazioaren patronatuak urtero zerrendatu beharko ditu Arabako kirol federazio bakoitzari dagozkion kopuruak.

18. artikulua.- Eskumenak eta ahalordeak eskuordetzea.

- 1.- Patronatuak eskumenak patronatuko kideei eskuordetu ahal izango dizkie. Edonola ere ezin izango da eskuordetu honakoei buruzko erabakiak hartzea:
- a) Urteko kontuak onestea.
 - b) Jarduketa plana onestea.
 - c) Estatutuak aldatzea.
 - d) Fundazioa bat egitea, zatitzea, eraldatzea, suntsitzea eta likidatzea.
 - e) Pertsona juridikoak eratzeko ekimenak, ekimen horiek helburuei zuzenean lotuta ez baldin badaude.
 - f) Beste pertsona juridiko batzuen parte-hartze ekimenak edo partaidetzen salmenta, zenbatekoa fundazioaren aktiboaren % 20 baino gehiagokoa denean.

- g) Fundazioaren aktiboaren % 20 gainditzen duten ondasun edo eskubideen gaineko xedapen egintzak.
 - h) Zuzkidura gehitzea eta gutxitzea.
 - i) Aktibo eta pasibo guztiak edo horien zati baten bat-egitea, zatitzea edo lagatzea.
 - j) Sozietateak edo pertsona juridikoak iraungitzeko ekimenak.
 - k) Patronatuko kideak autokontratitzea, jarduketa hori errepikakorra ez baldin bada eta aurretiaz babesletzak inguruabar berdinentzako baimena eman ez baldin badu.
 - l) Erantzukizunpeko adierazpenak egitea eta formalizatzea.
- 2.- Era berean, patronatuak eskumen orokorrak eta bereziak eman eta indargabetu ahal izango ditu.
- 3.- Patronatuak aholkularitza batzorde bat edo gehiago sortu ahal izango ditu, eta horien funtzioa txosten eta/edo proposamenak egitea izango da. Horretarako, patronatuak arauz mugatuko ditu aholkularitza batzordearen eraketa, funtzionamendu araubidea eta eginkizunak.

19. artikulua.- Batzorde executiboak edo batzorde delegatuak.

Patronatuak batera eta modu iraunkorrean eskuordetu ahal izango ditu bere eskumenak patronatuaren kideen alde, eta horretarako batzorde executiboak edo delegatuak sortuko ditu.

20. artikulua.- Patronatuaren betebeharrak.

Fundazioaren patronatuko kideek honako betebeharrak izango dituzte:

- a) Fundazioko helburuak betetzea eta betearaztea, legean eta fundazioaren estatutuetan ezarritakoarekin bat eginez.
- b) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak administratzea eta horien produktibitate osoa mantentzea, kudeaketa onaren irizpide ekonomiko eta finantzarioekin bat eginez.
- c) Deitutako bileretara joatea eta legezko ordezkari baten diligentziaren kargura lan egitea.

21. artikulua.- Patronatuko kideen erantzukizuna.

- 1.- Patronatuko kideek fundazioan modu solidarioan jardungo dute legearen edo estatutuen aurkakoak diren ekimenen ondorioz sortutako kalte-ordainei dagokienez edo kargua egikaritu behar duten diligentziarik gabe egindakoengatik.
- 2.- Ez dute erantzukizunik izango erabakiaren kontra bozkatu dutenek, erabakia hartzen eta betearazten parte hartu ez dutenek, erabakiaren berri eduki ez dutenek, ez eta beraren berri eduki arren kaltea saihesteko behar den guztia egin dutenek eta gutxienez haren kontra berariaz azaldu direnek ere.

22. artikulua.- Patronatuaren barne funtzionamendua.

- 1.- Patronatuko kideak presidenteak esandako guztietan edo gutxienez bi kidek hala eskatutako guztietan bilduko dira. Gutxienez urtean bi bilera egingo dituzte. Urte bakoitzeko lehenengo sei hilabeteetan halabeharrez bilduko dira urteko kontuak onesteko, eta urte bakoitzeko azken hiruhilekoan berriz ere bilduko dira hurrengo ekitaldiko jarduketa plana onesteko.
- 2.- Patronatuaren deialdiak idatziz egin beharko dira eta presidenteak onetsitako gai-zerrenda, bileraren lekua, eguna eta ordua eta hala badagokio gai-zerrendaren barneko dokumentuak izan

beharko ditu. Horrez gain kontuan hartu beharko dira gobernu organoaren kideen iradokizunak eta deialdia bilera baino gutxienez bost egun natural aurretik egingo da larrialdiko egoeretan salbu; horietan deialdia 3 egun natural aurretik egin ahal izango da.

23. artikulua.- Eratzea eta erabakiak hartzea.

- 1.- Patronatua baliozkotasunez eratua egongo da lehenengo deialdian patronatuko kideen erdia gehi bat daudenean (titularrak edo ordezkariak).
- 2.- Aurreko paragrafoan adierazitako quorum-a biltzen ez baldin bada patronatua ordubete geroago bilduko da, eta bigarren bilera horretan nahikoa izango da patronatuko edozein kide bertan egotea, gutxienez hiru izan beharko direlarik eta betiere horien artean presidentea egonez gero.
- 3.- Aurreko paragrafoetan adierazitakoa albo batera utzi gabe eta aurretiazko deialdirik ez baldin bada egon, patronatuak deialdia egina dagoela ulertuko du eta baliozkotasunez eratua geratuko da patronatuko kide guztiak bertan daudenean eta bilera egitea aho batez onesten dutenean.
- 4.- Erabakiak baliozkotasunez hartzeko bileran dauden patronatuko kideen gehiengo sinplea beharko da, honako inguruabarren bat gertatzen ez baldin bada:
 - a) Aldaketa, bat-egite, zatikatze edo iraungitze erabakia. Erabaki horrek patronatuko kide guztien bi herenen aldeko botoa izan beharko du.
 - b) Honako erabaki hauek, patronatuko kideen gehiengo absolutuaren aldeko botoa beharko dutenak.
 - Patronatuko kide berriak gehitzea.
- 5.- Patronatuko kide bakoitzak boto bat eman ahal izango du eta presidentearen botoak sortu ahal izango diren berdinketak hautsiko ditu. Patronatuko kideek ordezkariak erabili ahal izango dituzte edo botoa patronatuko beste kideren bati eskuordetu ahal izango diete. Ordezkaritza edo delegazioa baliozkoak izateko idatziz egin beharko dira eta patronatuaren bilera bakoitzerako egin beharko dira.
- 6.- Patronatuko bilera bakoitzean idazkariak akta egingo du, eta bileraren lekua eta eguna zehazteaz gain akta horretan bertaratuak, erabaki diren gaiak eta hartutako erabakien edukia jasoko dira.
- 7.- Patronatuko kideak bideokonferentzia bidez edo bestelako komunikabideen bidez bildu ahal izango dira, betiere bermatu egin beharko delarik bileran daudenen identifikazioa, komunikazioaren jarraikortasuna, erabakietan parte hartzeko aukera eta botoa eman ahal izatea. Kasu horretan bilerak presidentea dagoen tokian egingo dira.
- 8.- Aparteko kasuetan Patronatuak erabakiak hartu ahal izango ditu bilerarik egin gabe, betiere informazio eskubidea eta botorako eskubidea bermatzen baldin badira, botoak jaso direla jasotzen bada eta botoen autentikotasuna egiaztatzen bada. Erabakia pertsona juridikoaren egoitzan hartutzat joko da baliozkotasunez emandako azken botoa jasotzen den egunean.

III. TITULUA.- BALIABIDEAK APLIKATZEKO OINARRIZKO ARAUAK

24. artikulua.- Baliabideak zertarako erabiliko diren.

Fundazioaren baliabideak patronatuak adierazten dituen helburu estrategikoetan erabiliko dira, batez ere haueetan:

- a) Goi mailako kirol ez profesionalean diharduten kirol klub eta elkarteak babesten, taldeka zein norbanakoka ari izan gorabehera.
- b) Aurreko atalean jasota egon ez arren, Arabako kirolaren jardura adierazgarri direlako, patronatuaren iritziz nolabaiteko laguntza merezi duten kirol klub eta elkarteak babesten.
- c) Patronatuaren iritziz laguntza merezi duten kirol ez profesionalarekin zerikusia duten jarduerak finantzatzen.
- d) Salbuespen gisa, goi mailako kirol lehiaketarekin zerikusia duten jardura lerroak finantzatzen.

25. artikulua.- Baliabideak banatzea.

- 1.- Baliabideak banatzeko programa zehatzak ezarriko dira, eta aurreko artikuluan baliabideak zertarako erabiliko direnari buruzko sailkapenarekin bat eginez, programa horietan jaso beharko dira laguntzen onuradunek bete beharreko baldintzak.
- 2.- Baldintza horiek neurrak irizpide eta faktore objektiboen bidez ezarriko dira.
- 3.- Horri dagokionez eta baliabideak banatzearen inguruan, fundazioak oinarri hartuko du onuradunek modalitate bakoitzerako aurretiaz esleitutako kirol emaitzak egiaztatzea eta onuradunen artean banatu beharreko baliabideak zenbatuko ditu kirolari bakoitzaren merituetan oinarrituz eta Arabako kirolariak eta/edo kirol erakundeak modalitate bakoitzeko kirol kategorietan parte hartzea lortzeko eta/edo parte hartzea indartzeko helburuarekin.
- 4.- Baliabideak laguntzen onuradunen artean banatuko dira betiere onuradunek programetan zehaztutako baldintzak betetzen baldin badituzte, eta hori guztia irizpide objektiboekin bat eginez, besteak beste lizentzia kopurua, klub kopurua, lehiaketako kategoria ezberdinetan parte hartzen duen talde kopurua, ikasleak diren parte-hartzaile kopurua, teknikari kopurua, epaile eta arbitro kopurua, federazioaren antolamendu eta aurrekontu egoera, kirol modalitatearen orientazioa, kirola egiteko instalazioak eta abar.
- 5.- Hala ere, fundazioak helburu zehatz batean erabiltzeko baliabideak jasotzen baldin baditu, fundazioak lehentasunez agindu hori bete beharko du, albo batera utzi gabe fundazioaren gastu orokorrenzako beharrezko ekarpena fundazioan bertan zehaztea.

IV. TITULUA.- ONDAREA ETA ARAUBIDE EKONOMIKOA

26. artikulua.- Fundazioaren ondarea.

Fundazioaren ondarearen barne egongo dira hasierako zuzkidura osatzen duten eta balorazio ekonomikoa izan dezaketen ondasun, eskubide eta betebeharrak guztiak eta eratu ondoren eskuratutakoak, zuzkidurari lotuta egon edo ez. Horren barne egongo dira merkataritza sozietateen titulartasunak, eta mugak legeak ezarritakoak izango dira.

27. artikulua.- Ondare zuzkidura.

- 1.- Fundazioaren hasierako ondare zuzkidura izaera horrekin eraketako eskritura publikoan ezarritakoa izango da eta fundatzaileek emandako ondasunek eta eskubideek eratuko dute. Kopurua hogeita hamar mila eurokoa (30.000 euro) da.
- 2.- Ondorengo ondare zuzkidurak patronatuak onetsi beharko ditu eta urteko kontuetan jasota egon beharko dira.
- 3.- Fundazioak diru-sarreraren soberakinak fundazioaren zuzkidura gehitzeko erabili ahal izango ditu.

28. artikulua.- Ondasunak eta eskubideak.

- 1.- Fundazioaren helburua lortzeko baliabide ekonomikoak hauek izango dira:
 - a) Fundazioaren ondarearen emaitzak, errentak, produktuak edo onurak.
 - b) Fundazioaren zerbitzuen prestazioaren ondorioz onuradunen zenbatekoetatik jasotako diru-sarrerak, hala badagokio.
 - c) Fundazioak jasotako dohaintzak, jaraunspenak eta legatuak eta edozein titulu dela eta jasotzen dituen gainerako ondasunak eta/edo eskubideak.
 - d) Dirulaguntzak, mota guztietako ekarpen ekonomikoak eta fundazioak erakunde publikoetatik edo pribatuetatik eta pertsona fisikoetatik jaso ditzakeen gainerako publikitate babesleritzak.
- 2.- Jaraunspen bidez jasotako ondasunak, legatuak, dohaintzak edo bestelako tituluetatik jasotakoak eskualdatzailearen nahiaren arabera aplikatu edo gordeko dira, eta eskuratze tituluan ezarritako baldintzak errespetatuko dira. Hala ere, ezarritako baldintzarik ez baldin badago, patronatuak une oro eta behar den guztietan eta inguruabar ekonomikoekin bat eginez beharrezko aldaketak edo egokiak direnak egin ahal izango ditu fundazioaren ondarearen inbertsioetan.
- 3.- Fundazioak onuradunei eta hirugarrenei emandako zerbitzuak salbuespenez ordaindu ahal izango dira, betiere jasotako diru-sarrerak fundazioaren helburuak lortzeko erabiltzen baldin badira eta onuradun posibleen alorrean justifikatu gabeko mugarik sortzen ez baldin badute.

29. artikulua.- Fundazioaren ondarea gordetzea.

- 1.- Fundazioaren ondarea gordetzeko eta zaintzeko honako arauak beteko dira:
 - a) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak fundazioaren izenean egon beharko dira eta fundazioaren inbentarioan jasota egon beharko dira eta hala badagokio, dagokion erregistroetan inskribatuta egon beharko dira.
 - b) Ondasun higiezinak eta/edo eskubide errealak fundazioaren izenean inskribatuko dira Jabetzaren Erregistroan. Inskribatu ahal izango diren gainerako ondasunak dagozkion erregistroetan inskribatuko dira.
 - c) Balore higigarriak eta funts publikoak patronatuak jarriko ditu banku erakundeetan fundazioaren izenean.
 - d) Gainerako ondasun higigarriak, jabego tituluak edo bestelako eskubide errealenak, eskudirua, gordailu erreziiboak eta jabegoa, edukitzea, erabilera, gozamina edo fundazioa titularra den gainerako eskubideak egiaztatzeko agiriak patronatuak berak edo patronatuak izendatutako ordezkariak gordeko ditu.
- 2.- Ondasun eta eskubide horiek guztiak inbentarioen liburuan zehaztuko dira, eta liburu hori patronatuaren idazkariaren kargura egongo da. Bertan, eta idazkariak ikuskatuta, ondasunak eta eskubideak identifikatzeko eta deskribatzeko beharrezko inguruabarrak kontsignatuko dira.

30. artikulua.- Betebehar ekonomikoak eta kontabilitateari dagozkionak.

- 1.- Urteko kontuak onartu eta hurrengo 30 egun naturalen barnean fundazioaren patronatuak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistrora bidali beharko ditu sinatutako urteko kontuak horiek gordetzeko. Kontuak era berean bete egin beharko dituzte irabazi asmorik gabeko erakundeentzako kontabilitateari buruzko araubidean aurreikusitako betekizunak.
- 2.- Fundazioaren urteko kontuetan gutxienez balantzea, emaitzen kontua, memoria eta aurreko jarduketa planaren likidazioa jaso beharko dira. Era berean, patronatuak kontu ikuskaritzaren txostena aurkeztuko du Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legean aurreikusitako inguruabarretan.
- 3.- Kontu horietan agertu beharko dira fundazioaren ondare egoera, egoera ekonomikoa eta finantza egoera, urtean zehar egindako jarduerak eta ondarearen kudeaketa ekonomikoa, fundazioaren helburuak eta legezko xedapenak ezagutzeko eta horiek betetzen direla egiaztatze behar direnak.
- 4.- Ekitaldi ekonomikoak urteen arabera banatuko dira eta urte naturalean hasi eta urte bakoitzeko abenduaren 31n bukatuko dira.
- 5.- Fundazioak ekitaldi ekonomiko bakoitzerako jarduketa plana sortuko du eta bertan jasoko dira diru-sarrerak eta gastuak modu orekatuan. Plan hori babesletzan aurkeztuko da onesten den urteko azken hiruhilekoan azalpen memoriarekin batera. Aurrekontuen aurreproiektua onesteko Aurrekontuei buruzko Foru Arauak eta Arabako Foru Aldundiak emandako xedapenak beteko dira.

31 artikulua.- Derrigorrezko liburuak.

- 1.- Fundazioak gutxienez honako liburuak izan beharko ditu:
 - a) Inbentarioen eta urteko kontuen liburua.
 - b) Eguneroko liburua.
 - c) Patronatuaren akten liburua.
 - d) Eratzen den batzorde bakoitzeko akta liburua.
 - e) Zerrendan jaso ez diren gainerako liburuak, derrigorrezkoak direnak indarrean dauden xedapenekin bat eginez.
- 2.- Eguneroko liburuaren eta inbentarioen liburuaren eta urteko kontuen liburuaren edukia eta egitura merkataritza legerian aurreikusitakoarekin bat egingo da.

32. artikulua.- Fundazioaren baliabideak aplikatzea.

- 1.- Fundazioak bere helburuak betetzeko erabili beharko du gutxienez emaitzen kontuko diru-sarreraren % 70, kontzeptu guztiengatik jasotakoak eta diru-sarrerak jasotzeko gastuak kendu ondoren, fundazioaren helburuak betetzeko izan direnak albo batera utzita. Betebehar hori betetzeko epea emaitza eta diru-sarrerak lortu diren ekitaldia hasi eta ekitaldi hori bukatu eta hurrengo hiru urteen arteko epea izango da.
- 2.- Administrazio gastuak izango dira zuzenean fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunen eta eskubideen administrazioak sortutakoak eta patronatuko kideei kargua egikaritzean sortu zaizkienak, itzulketa eskubidea dutenak hain zuzen ere.

33. artikulua.- Jarduera ekonomikoak, enpresakoak edo merkataritzakoak egitea.

- 1.- Fundazioak zuzenean edo beste erakunde batzuen bitartez jarduera ekonomikoak, enpresakoak edo merkataritzakoak gauzatu ahal izango ditu fundazioaren helburuak betetzen badituzte eta horiekiko

bateragarriak edo osagarriak ez baldin badira. Horretarako eskumena defendatzeko arauak beteko dira.

- 2.- Gainera, beste erakunde batzuetan parte hartuz jarduera ekonomikoetan esku hartu ahal izango dute gizarte zorren aurrean modu pertsonalean jarduten ez den inguruabarretan.

34. artikulua.- Xedapen edo zergapetze egintzak.

- 1.- Fundazioak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzari jakinarazi beharko dizkio kostubidezko edo doako xedapen egintzak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legean adierazitako fundazioaren ondarearen zati diren ondasunen edo eskubideen zergapetze egintzak.
- 2.- Patronatuak babesletzari aurkeztu beharko dio xedapen edo zergapetze erabakia zuzentasunez hartu dela zehazten duen erantzukizunpeko adierazpena, eta hori gauzatzeko arrazoia eta beharra adierazi beharko ditu, baita eragiketa ez dela fundazioarentzako kaltegarria ere eta ez duela arriskuan jartzen fundazioaren bideragarritasun ekonomikoa.
- 3.- Xedapen edo zergapetze egintzen helburu diren ondasunen edo eskubideen merkatuko balioa fundazioaren aktiboaren % 60 baino gehiagokoa baldin bada, patronatuak erantzukizunpeko adierazpenarekin batera profesional independente batek egindako azterketa ekonomikoa aurkeztu beharko du eta azterketa horrek egiaztatu egin beharko du bertan jasotakoa eta bermatu egin beharko du fundazioaren bideragarritasun ekonomikoa eta eragiketak irizpide ekonomikoak eta finantzarioak eta merkatukoak betetzen dituela.
- 4.- Adierazitako xedapen edo zergapetze egintzak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan jasoko dira, albo batera utzi gabe hala dagokionean erregistroan inskribatzea. Gainerako xedapen edo zergapetze egintzak babesletzari urtero aurkeztu beharreko memorian jaso beharko dira.

V. TITULUA.- ALDAKETA, BAT-EGITEA, ZATITZEA, IRUNGITZEA ETA LIKIDAZIOA.

35. artikulua.- Estatutuak aldatzea.

- 1.- Fundazioaren patronatuak estatutu hauek aldatzea erabaki ahal izango du betiere fundazioaren helburuak hobeto lortzeko egokia baldin bada, fundazioaren helburua errespetatzen baldin bada eta fundatzaileek berariaz debekatzen ez baldin badute.
- 2.- Estatutuak aldatzeko erabakia arrazoituta hartu beharko da eta gutxienez patronatuko kideen bi herenak aldeko botoa eman beharko du. Eskritura publikoaren bitartez formalizatuko da eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko da.

36. artikulua.- Bat-egitea.

- 1.- Patronatuak fundazioak beste fundazio batekin edo batzuekin bat-egitea erabaki ahal izango du fundazio berri bat eratzeko, betiere fundazioaren helburua betetzen baldin bada. Kasu horretan erabakia arrazoitua izan beharko da. Erabaki hori Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legean, garapeneko araubidezko xedapenetan eta indarrean dagoen gainerako araubidean aurreikusitako bat-egite prozedura kontuan hartuz egin beharko da.
- 2.- Bat-egitea eskritura publikoaren bitartez formalizatuko da.

37.artikulua.- Iraungitzea.

Fundazioa iraungi egingo da kasu hauetan:

- a) Eratua izan zenean ezarritako epea bukatzen denean.
- b) Eratua izan zenean ezarritako helburu guztiak betetzen direnean.
- c) Fundazioaren helburua betetzea ezinezkoa denean, albo batera utzi gabe estatutuak aldatzeari, bat-egiteari eta zatitzeari buruz Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Legean aurreikusitakoa. Helburua betetzea ezinezkoa dela ulertuko da urteko kirol programak egikaritzeko beharrezko baliabide ekonomikorik ez dagoenean.
- d) Hala gertatzen denean bat-egite edo zatikatze prozesu baten ondorioz.
- e) Galerak direla eta fundazioaren ondarea hasierako zuzkidura baino zenbateko baxuagora murrizten denean.
- f) Eraketako eskritura publikoan aurreikusitako inguruabarrak gertatzen direnean.
- g) Legeetan aurreikusitako bestelako inguruabarrak gertatzen direnean.

38. artikulua.- Iraungitze prozedura.

- 1.- Aurreko artikuluko a) atalean ezarritako inguruabarra gertatzean fundazioa eskubide osoan iraungiko da.
- 2.- Aurreko artikuluko b), c), e) eta f) ataletan ezarritako inguruabarretan fundazioa iraungitzeko patronatuak erabakia hartu beharko du eta babesletzak berretsi egin beharko du. Patronatuak erabakirik ematen ez badu edo babesletzak ez badu berresten, fundazioa iraungitzeko arrazoitutako ebazpen judiziala egon beharko da eta babesletzak edo patronatuak hori agindu ahal izango du, kasuaren arabera.
- 3.- Aurreko artikuluko g) atalean adierazitako inguruabarra gertatzen baldin bada arrazoitutako ebazpen judiziala beharko da.
- 4.- Iraungitzeko erabakia arrazoitu egin beharko da, eta gutxienez patronatuko kideen bi herenen aldeko botoak beharko dira.
- 5.- Iraungitzeko erabakia edo, bestela, arrazoitutako ebazpen judiziala Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko da.

39. artikulua.- Likidazioa eta ondare soberakina zertarako erabiliko den.

- 1.- Fundazioa iraungitzen bada, iraungitze horren jatorria bat-egite prozedura ez baldin bada edo iraungitze arrazoiak betetzea ez baldin bada, likidazio prozedura irekiko da, eta prozedura hori patronatuak edo babesletzaren kontrolpeko gobernu organoak izendatutako batzorde likidatzaileak egingo du, salbuetsiz hala badagokio arrazoitutako ebazpen judizialean ezarritakoa. Fundazioak izaera juridikoa mantenduko du prozesua bukatu arte, eta aldi horretan zehar fundazioa “likidazio prozeduran” dagoela jaso beharko da.
- 2.- Likidazioaren ondoriozko ondasunak eta eskubideak honako hauetarako erabiliko dira:
 - a) Pertsona juridiko fundatzaileei emango zaizkie fundazioa eratu zenean edo ondoren egindako ekarpenen proportzioan.
 - b) Irabazi asmorik ez duten erakunde publiko edo pribatuei emango zaizkie interes orokorreko helburuak lortzeko.

3.- Aurrekorik ez baldin badago, ondasunak eta eskubideak babesletzak helburu antzekoak dituzten fundazioei edo erakundeei emango dizkie, lehentasunez egoitza udalerrri berean dutenei eta horrelakorik ez baldin badago, egoitza lurralde historiko berean dutenei.

VI. TITULUA.- BABESLARITZA ETA FUNDAZIOEN ERREGISTROA

40. artikulua.- Euskal Autonomía Erkidegoko Fundazioen Erregistroa.

Fundazio horren eraketa eta legez beharrezkoak diren bere egintza eta negozio juridiko guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.

41. artikulua.- Euskal Autonomía Erkidegoko Babeslaritza.

Fundazio hori Euskal Autonomia Erkidegoaren Fundazioen Babeslaritzaren tutoretzaren, aholkularitzaren eta kontrolaren menpe egongo da indarrean dauden legeetan aurreikusitako terminoetan.

42. artikulua.- Zehapen araubidea.

Fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legean aurreikusitako zehapen araubidearen menpe dago.